

Frantzia ere zutik, EBren bihotzean



Xabier Letona

@xletona

ERREPUBLIKA PLAZAKO mobilizazioetatik zer aterako den inork ez daki oraindik, baina Nuit Debout (Gaua Zutik) mugimenduaren abiadak Frantzia arrasto sakona utziko duela iragarri liteke. Manuel Valls lehen ministroaren lan erreforma atzera botatzeko martxoaren 31ko greba orokorraren ondoren ikasle eta gazteek ez zirela etxeratuko erabaki zuten, eta harrez gero gauero biltzen dira Errepublikako Plazan, jadanik hainbat borroka molderen bilgune bihurtua.

Doinua ez zaio ezezaguna Espainiako M-15 mugimendua jarraitu zuenari. Edo Islandiako banku eta gobernuaren aurkako protesten jarraitzaileari. Gazteak eta ikasleak tiraka, lan erreforma indarrean ez jartzea da helburu nagusia, baina dagoeneko gauak sumindu ugari batu ditu bere baitan: lan prekarietatera kondenatutakoak, etxegabetzeen borroka, matrikulen etengabeko garestitzea salatzen duten ikasleak, paperik gabekoen aldekoak, pentsioak gero eta urriagoak dituzten jubilatuak, ekologistak, sindikalistak... Borroka zahar eta berrien uztarri bilakatu da Nuit Debout.

Pariseko bihotzean sortua, ikasle zu-riak akuilu, norbait ohartu zen haren bilakaera, bere horretan, arriskutsua eta zatitzailea izan zitekeela: "hemen periferia falta da". Eta Parisko auzo baztertu eta txiroagoetara ere hedatu da jada gara. Eta berdin Frantziako dozenaka hiri eta herrietara.

Frantziako establishmenta saiatu zen ezikusiarrena egiten, hedabide handienei ere kosta zitzaizen erreakzionatzea, eta egin dutenean, urriak izan diren manifestarien bortxazko erreakzioei leku ugari ematen diete. "Zer daukazu esateko hainbat manifestarien biolentziaz", galdetzen zaie Nuit Debouteko bozemaileei, hauek gaez poliziak Errepublikako Plazatik egotziak izan ondoren.

Gau batean bai, hurrengoan ere bai, bortxaz kanporatuak diren horiei luzatutako galdera zatitzaileak.

Myriam El Khomri ministroaren lan erreforma geldiaraztea du helburu martxoaren 31n abiarazitako sindikatuen mobilizazio erraldoiak, baina Nuit Debout urrutirago doa. François Hollanderen gobernu zartarazi nahiko luke, alderdi politiko zaharkituen sistema dantzan jarri, konstituzio prozesu berria bultzatu Frantzia, neoliberalismoaren bultzada gerarazi, gizarte eredia aldatu... Gehiegi dena gauetik egunera lortzeko, baina ez mugimenduaren norabidea finkatzeko.

ISLANDIAN, Grezian, Espainian, Portugalen eta Europako beste hainbat herrialdeetan bizitako ezta dera. Emaitzak ez dira berdinak izan guztietan, baina sakoneko korrontea norabide berdinean doa.

“Frantziako suminduek balantza desorekatu dute, apur bat sikiera, eta gatazka EBren bihotzera eraman dute”

Orain arteko irudian, baina, Europar Batasuneko periferia versus zentroa agertu da eta lehiaren irudi gordinetakoa Troiak Grezia irentsi zueneko izan zen. Frantziako suminduek balantza desorekatu dute, apur bat sikiera, eta gatazka EBren bihotzera eraman dute. Alemaniak agintzen du, baina Frantzia bada nor oraindik. Zer aldatuko den inork ez daki, baina aldaketaren ubidean korrontea azkartu dela ez da zalantzarik.

François Hollanderen Gobernu botanahi du Nuit Deboutek, PSri mozarroa behingoz kendu. Zalantza barik, helburu gaitzak epe motzera, eta hala ere, Hollanderenekin egin du. Italia eta Espainiarekin batera, EBren grabitate zentroa aldatzera etorri zenak, Troikaren eredia gizendu besterik ez du egin. Egunotan, Frantzia, Europako sozialdemokrazia historikoa beste urrats esanguratsu bat ematen ari da bere gainbeheran.

Errepublikaren Plaza bete-hustu dinamika noiz arte jarraituko duen ez dago garbi, baina bere helburua gutxienez apirilaren 28ra arte irautea da. Egun horretan, sindikatu eta gizarte mugimenduek lan erreformaren aurkako beste mobilizazio egun bat deitu dute. Frantziak bakarrik ez, egun horretan EB osoak finkatuko ditu bere begiak hexagonoan.

ESPAINIAN ere izan dezake eraginik Frantzia gertatzen ari denak, eta ez Podemos PSOerekin gobernuan ikuste aldera. Nekez onetsiko zuten bestela ere PSOE eta C's-en akordioa alderdi moreko oinarriek, baina Frantziako oihartzunekin are eta gutxiago.

Hauteskundeak edo koalizio handia, horra Espainiako Estatuko herritarrek begien aurrean dutena. Podemos bietatik atera daiteke ongi, PSOEk bietan du amildegia aurrez aurre. ■